


Izaro Andres izan zen aurtengo sagardoaren amabitxia.



Aurtengo denboraldiko sagardoa dastatzeko aukera izan zen Alorrenea sagardotegian.



Izaro Andres sagarrondo bat landatzen Astigarragako Sagardoetxeko sagar...

27. Sagardo Berriaren Eguna ospatu zen atzo Astigarragako Alorrenea sagardotegian eta Izaro arduratu zen denboraldiari hasiera emateaz. Iaz baino alkohol gutxiago dauka eta hiru milioi litro ekoitzi dira aurten bertako sagarrekin.

Sara Iburgurenen erreportajea Ruben Plazaren argazkiak

Txinparta politeko sagardoa

Izaro Andres abeslariak hasiera eman zion atzo txotx denboraldi berriari Astigarragako Alorrenea sagardotegian, uzta berriaren lehenengo kupela irekitzarekin batera.

27. Sagardo Berriaren Eguna ospatu zutenek 2019ko uzta probatzeko aukera izan zuten, iaz baino azukre gutxiago duena eta, beraz, baita alkohol gutxiago ere. Bertako sagararekin ekoitzi duten sagardoaren %30 -hiru milioi litro- Euskal Sagardoa jatorri-deitura zigitupean egin dute.

Nere Lizeagak, Sagardoaren Lurraldeko sagardogileen ordezkariak, Sagardoetxean antolatuta zuten aurkezpenaren azaldu zuenez, aurtengo uzta "oso oparoa" izan da, produkzio altukoa. "Jatorri Deituraren baitan 500 hektarea erabili ditugu, 250 sargargilerenak", azpimarratu zuen Lizeagak. Lan horren ondorioz, "kolore alaiak dituen eta txinparta polita duen sagardoa izango da aurten probatuko duguna", esan zuen sagardogileen ordezkariak.

Aurten Sagardoaren Lurraldeak eta Fruitelek kontrolatu dituzten bertako sagarrak Moko, Txalaka, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Gezamina bariatatekoak izan dira, besteak beste.

Euskal Sagardoaren jatorri-izendapeneko laugarren uzta izan da 2019koa eta, Unai Agirre bertako gerenteak azaldu zuenez, poliki-poliki sagargileak ari dira gerturatzeko proiektu honetara: "48 sagardotegik egin dituzte hiru milioi litro hauek eta kopurua gorantz doa". Hala ere, merkatuaren garrantzia azpimarratu nahi izan zuen Agirrek: "Merkatuak erantzun egin behar du; kalitatezko produktu bat den neurrian, modu horretan saldu behar da eta horretan ari gara lanean".

Aurtengo helburu gisa, ostalaritzan zentratu nahi dute. "Hemen go taberna eta jatetxeetan euskal sagardo desberdinen aukera izatea nahiko genuke. Sagardo kartak edukitzea eta sagardoa beste modu batera kontsumitzeko aukera egotea", azpimarratu zuen Agirrek.

Bestalde, Imanol Lasa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatuak, adierazi zuenaren arabera, Aldundiak aurrekontuetan onartu

berri du Gipuzkoan bertako sagarrendoen landaketak bultzatzeko diru-laguntza deialdia. "Ia 300.000 euroko kopurua jarriko dugu. Deialdi hau 2016an jarri genuen abian eta emaitza oso onak izaten ari da", esan zuen Lasak.

Astigarragako alkate den Xabier Urdangarinek, bere aldetik, esker-erak eman nahi izan zizkien sagardo partzuergoko kideak diren elkarteek: "Iruditzen zait Astigarragako herriak ibilbide luzea egin duela sagardogintzaren kultura bultzatzen eta bide horretan ezinbestekoak izan dira herriko elkarteak", nabarmendu zuen. Jarraian, gonpidapena luzatu zuen nahi duen orok Gipuzkoako sagardotegiak bisita ditzan.

JAIAREN HASIERA Aurtengo Sagardo Berriaren Eguneke prentsaurrekoan oron ondoren, ohiturak agintzen

duen moduan, Izarok sagarrendo bat landatu zuen Sagardoetxeko sagastian Astigarragako alkatearen laguntzaz. Amaitu zuenean, Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendi bertsolariak sagardoarekin erlazionatutako bertsoak abestu zituzten, kazetari eta gonbidatuek adi-adi entzuten zituzten bitartean.

Jarraian, eguneko une garrantzitsuena bizitzeko gogoz, Sagardoetxetik Alorrenea sagardotegira zuzendu ziren guztiak. 13.30ean, txalapartarien laguntzarekin, sagardantza egin zuen dantzari gaztez osatutako talde batek eta, ondoren, Izarok parte hartu zuen soka dantza baten bidez dantzariak eta gonbidatuak eskutik helduta sartu ziren Alorreneako kupelen eremura.

13.45ean iritsi zuten momentu gogoangarriena. Prentsaurrekoan alkoholik edaten ez duela adierazi

zuen arren, Izarok lehen kupela zabaldu zuen "gure sagardo berria!" hitzak gogotsu esanaz. Mallabiko abeslaria ez zen bakarrik egon. Iker Lauroba ere alboan izan zuen, eskaintzen dituen kontzertuetan bere musikarietako bat dena.

Izarok sagardoa dastatu ostean, bertaratu ziren guztien txanda iritsi zen. Bakoitzak bere edalontzia hartu eta, berriro ere Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendiren bertsoen laguntzaz, aurtengo uzta probatzeko ilara osatu zuten kupelaren aurrean.

Bien bitartean, Alorreneako sukaldariek sagardotegiko ohiko menua -kroketa, bakailao tortila, bakailao piperrekin eta txuleta-prestatu zituzten. Sagardoa dastatu ondoren, gonbidatu guztiak bertako mahaletan eseri eta festa giroan bazkaldu zuten. ●

"Kolore alaiak dituen eta txinparta polita duen sagardoa izango da aurten probatuko duguna"

NERE LIZEAGA
Sagardoaren Lurraldeko ordezkaria

"Kalitatezko produktu bat den neurrian, modu horretan saldu behar da eta horretan ari gara lanean"

UNAI AGIRRE
Euskal Sagardoa jatorri-deiturako gerentea

"Iruditzen zait Astigarragako herriak ibilbide luzea egin duela sagardogintzaren kultura bultzatzen"

XABIER URDANGARIN
Astigarragako alkatea

Izaro Andres

ABESLARIA

"Sagardoaren kultura sagardotegietatik harago doa"

Izaro Andres abeslaria arduratu zen atzo Astigarragako Alorrenea sagardotegian aurtengo txotx denboraldiari hasiera emateaz

DONOSTIA - Izaro Andres (Mallabia, 1993) 2014an hasi zen kanta konposatzen. 2016. urtean *Om* izeneko bere lehen diskoa kaleratu zuen, *crowdfunding* kanpaina bat egin ondoren. Orduetik, hainbat kolaborazio egin ditu hainbat musikarirekin. 2017an *Hankapuntetan I* lan laburra kaleratu zuen Durango-ko Azokarako eta 2018an *Eason*



diskoa atera zuen. Hurrengo diskoa, *Limones en invierno*, urtarrilaren 31an argitaratuko du.

Nola sentitzen zara Sagardo Berriaren Eguneke protagonista izateagatik?

-Nahiko eroso nago. Gonbidatua zarenean oso ondo zaintzen zaituzte eta dena zure neurria eginda egoten da. Egia esan, oso ondo zaindu naute.

Alkoholik ez duzula edaten adierazi duzu. Probatu al duzu aurtengo sagardoa?

-Bai, probatu dut eta goxoa dagoela esan beharra daukat.

Espero al zenuen gonbidapen hau lutzatuko zizutenik?

-Ez, egia esan, inondik inora ere ez nuen espero.

Berehala onartu al zenuen denboraldiari hasiera emateko proposamena?

-Hasieran sorpresa hartu nuen: nire burua lekuz kanpo ikusten nuen pixka bat giro honetan. Baina gerora pentsatzen aritu nintzen eta egia da sagardoaren kultura sagardotegitik harago doala. Bizitzeko modu bat da, batez ere Gipuzkoako zonalde honetan, eta lan asko zizizten duena, gainera. Pertsona askoren lana suposatzen du, egun asko, pazientzia handia... Beraz, uste dut polita dela horrelako irekiera batean parte hartzea. -S.I.